

Apirilaren 19an  
**JAUNAREN NEKALDIKO OSTIRAL SANTUA**

*Eguerdi ondorengo orduetan, arrazoi pastoralengatik beranduagoko orduren bat aukeratzen ez bada, Jaunaren Nekaldiaren ospakizuna egingo da. Ospakizun honek hiru zati ditu: hitzaren liturgia, gurutzea gurtzea eta jaunartzea.*

### **Sarrerako oharpena**

Ostiral Santu arratsalde honetan, isilean eta otoitzean bilduak gaude, baina ez gara etorri hildako baten hilobi aurrean isilik egotera, Jesu Kristo bizi dela sinesten baitugu. Ez gara etorri saldua, torturatua eta gurutzean josia izan den gizon baten hiletak jotzera, gurutzea garaipen-ikurra baita. Ez gara bildu antzinako istorio batzuk entzutera, Kristoren nekaldia egiazkoa eta presente dagoena baita.

Kristau elkarteak Kristoren heriotza kontatzen digun Jainkoaren Hitza entzutera bildu da, Gurutze salbagarria gurtzera eta bere burua eskaini eta batasunean biltzen gaituenaren Gorputza elkarbanatzera. Otoitz sendoa egin nahi dugu, uste onez eta itxaropenez bete. Bai baitakigu Kristoren heriotza eta piztueratik datorrela gizakion salbamena ere. Isilik eta begirune osoz hasten gara.

*Apaiza eta diakonoa –diakonorik bada–, Mezarako bezala gorritz jantzita, aldarera doaz isiltasunean, eta, aldarea agurtu ondoren, ahuspez etzango dira edota, egokiago iritziz gero, belaunikatu; eta une batean isilik otoitz egingo dute. Gainerako guztiak belaunikatu egingo dira.*

*Gero apaiza, bere laguntzaileekin, jarlekura joango da. Han, zutik dagoen herriari begira eta eskuak bildurik dituela, ondorengo otoitzetako bat esango du, Egin dezagun otoitz deia egin gabe.*

## Otoitza

**Jainko Jauna, Jesu Kristo zure Semeak,  
bere odola gugatik isuriz sortu zuen pazko misterioa;  
gogoan izan zure bihotz ona eta agertu zeure errukia;  
santu egitzazu zeure seme-alabak eta zaindu beti.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

*Edota:*

**Jainko Jauna,  
Jesu Kristo gure Jaunaren nekaldiaz ezereztu zenuen  
lehenengo bekatuak gizon-emakume guztietara zabalduak  
heriotza;  
egin gaitzazu zure Semearen irudiko,  
izatez Adamen antzeko garenok,  
zure graziaz Jesu Kristoren antzeko izan gaitezen.  
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

## I. HITZAREN LITURGIA

### Hitzaren liturgiari oharpena

Hitzaren liturgia da elizkizun honen lehenengo zatia. Jaunaren Nekaldiaren kontakizuna izango da irakurgai nagusia eta Nekaldia ulertzen lagunduko digute aurreko irakurgaiak. Jaunak “bere gain hartu zituen askoren bekatuak” eta “haren esaneko egin direnentzat betiko salbamenaren iturri egin da”.

### **Lehenengo irakurgaia** (*Is 52, 13–53, 12*)

Isaias profetaren liburutik

Hara, nire zerbitzaria aurrera aterako da; handia egingo da eta goratua izango.

Asko hartaz ikaraturik gelditu baziren ere —hartaraino baitzuen giza-itxura galdu, eta gizona zenik ere ez baitzuen irudi—, gero harriturik geldituko dira herri asko, eta erregeak haren aurrean hitzik gabe geldituko dira, egundaino esan ez zena ikustean, eta entzun ez zena begiratzean. Nork sinetsi du guk esandakoa? Nori agertu zaio Jaunaren besoa? Kimua bezala hazi zen haren aurrean; zuztarra lur lehorrean bezala, ederrik eta giza-antzik gabe ikusi genuen eta itxura atseginik gabe, barregarri eta gizonetan azkeneko, oinaze-gizon egina, nekeen berri dakiena, ezikusi egiten zaienetakoa; gaitzetsia eta baztertua. Gure nekeak hartu zituen hark eta gure minak eraman. Lepradun bezala geneukan, Jaungoikoak joa eta lotsarazia. Gure bekatuengatik aldenik-alde zulatua; gure gaiztakeriengatik txikitua. Haren gainera erori zen, guri bakea ematen digun zigorra; Haren zauriek sendatu gaituzte.

Gu denok, ardi galduak ginen, bakoitza bere bidetik; eta Jaunak haren gainean ezarri zituen gu guztion txarkeriak. Gaizki zerabilten, baina bera makurtu egin zen; eta ez zuen ahorik ireki. Harategira daramaten arkumea bezala, ile-moztaileen aurrean ardia bezala, isilik egon zen, ahorik ireki gabe.

Zuzen gabeko auzitan galdu zuten. Nork hartu zuen aintzakotzat haren etorkizuna? Bizidunen lurretik kendu egin zuten; nire herriaren bekatuengatik hil zuten. Gaizkileen artean lur eman zioten, eta bekatariekin haren hilobia; nahiz eta berak bidegabekeriarik ez egin, eta haren ahotik gezurrik ez jalki.

Jaunak nekeetan lehertu nahi izan zuen. Bere bizia ordain ematen badu, izango du ondorengo ugari, luzatuko zaizkio egunak, beteko da Jaunaren nahia haren bitartez.

Bere oinazeen sari, ikusiko du argia eta aseko da. Jasan duenaren bidez, nire zerbitzariak zuzentasuna emango dio askori, haien hutsegiteak bere gain hartuz.

Horregatik jendetzak emango dizkiot Nik bere parte, gizataldeak izango ditu harrapakin; heriotzara eman baitzuen bere burua, eta bekatarizat hartu baitzuten. Bere gain hartu zituen askoren hutsegiteak, eta bitarteko izan zen bekatarientzat.

### Erantzun-salmoa (Sal 30, 2 eta 6. 12-13. 15-16. 17 eta 25)

Zu - re esku-e - tan dut bi - zi - a, as - ka na - za -  
 zu, Jaun haun - di - a.

Zugana biltzen naiz, Jauna, '  
 ez nadila behin ere lotsa:  
 zeure zuzentasunez onik nazazu atera.  
 Zure eskuetan uzten dut neure arnasa,  
 askatuko nauzu, Jauna, Jainko leiala. R/.

Etsai guztiei barregarri natzaie, '  
 auzoei irrigarri, ezagunei izugarri:  
 kalean ikusi eta alde dagite nigandik.  
 Hildakoa bezala naute bihotzean ahaztu,  
 ontzi baztertua bezala naiz gertatu. R/.

Nik, ordea, Jauna, uste on Zugan dut, '  
 «Zu zara nire Jainko», diotsut.  
 Zure eskuan nire joan-etorria,  
 atera nazazu etsaien eskutik,  
 aurrean narabiltenengandik. R/.

Aurpegi argia erakutsi morroi honi,  
salba nazazu zeure errukiz.  
Bizkor zaitetze, izan bihotz,  
Jaunagan uste on duzuen guztiok. R/.

### **Bigarren irakurgaia** (*Heb 4, 14-16; 5, 7-9*)

Hebrearrei egindako epistolatik

Senideok: Jesus, Jaungoikoaren Semea, dugu zeruetan sartu zen apaiz nagusi handia; eutsi diezaiogun, beraz, sinesmen aitormenari; gure apaiz nagusia ez baita gure ahuleriaz erruki ez daitekeen norbait; baizik eta gure antzera gauza guztietan aztertua, baina bekatutik garbi. Goazen, beraz, uste osoz, graziaren aulkira; errukia iritsi eta behar orduko laguntza emango digun mesedea aurki dezagun.

Kristok, haragizko bere bizitzaldian, heriotzatik gorde zezakeenari, deiadar handiz eta negarrez, otoitzak eta eskariak egin zizkion; eta bere begiruneagatik entzun egin zitzaion. Eta Semea izanik ere, bere neke artean ikasi zuen esaneko izaten; eta bere betera iritsirik, Haren esaneko direnentzat betiko salbamen iturri egin zen.

### **Ebanjelio-aurreko gorapena** (*Ik. Flp 2, 8-9*)

Je - su-kris- to gu - ri min-tza, ar - gi gu-re bi-ho - tza

Kristo gugatik menpeko egin zen heriotzaraino, ' gurutzeko heriotzaraino.  
Horregatik Jainkoak goratu egin zuen,  
eta izen guztien gaineko izena eman zion. R/.

## Ebanjelioa (Jn 18, 1 – 19, 42)

*Antzinako ohiturari jarraituz, egokia da Jaunaren Nekaldia hiru lagunen artean irakurtzea, Jesusi dagozkionak apaizarentzat utziz. Hobe da Nekaldia patxadaz eta jarraian irakurtzea, oharpenekin eten gabe. Esan beharrekoak homilian esan.*

### Homiliarako argibideak

*Maitatu ninduen eta nigatik eman zuen bere burua*

Agintari juduei ez zitzaien gustatu gurutzean jarritako titulua, akusatu hark egindako krimena -errege izan nahia-, adierazten zuena. Agintari haiek asmatu eta argudiatu zuten akusazio hura, ordea. San Joanen ebanjelioak oso serio hartzen du, eta **Jesusen errege izendapenean** ezartzen du nekaldiaren historia guztiaren ardatza (Jn 18, 1-19, 42). Oso errege berezia da, noski, asto baten gainean hasi baitzuen tronurako ibilbidea. Gurutzea izan zen tronua, eta jarri zioten koroa, berriz, arantzazkoa. Jesus bere gurutzetik izan zen errege. Hala, nork bere intereserako erabilitako erregetza eta giza botere oro kritikatzeko da.

Historiako biktima guztiei **justizia egiteko** dago erregea. Gizakiok ez dugunez justiziarik egitek, Jainkoak egitea espero dugu. Eta bai, Jainkoak egiten du justizia, baina modu guztiz harrigarrian. Justizia ez da bakoitzari berea ematea besterik, jada, salbamena esan nahi du. Herria askatuz egiten du justizia Jainkoak, bere bekatutik libratuz. Gurutzean besoak zabalik, unibertsoa besarkatzen du Jesusek.

Bere tronutik, bere mendekoei **bere dohainak** isurtzen hasiko da. Ez da bere buruagan pentsatzeko unea, besteengan baizik. Soldaduak ere onuradun irten ziren, euren jantziak banatuz. Tunika, pieza bakarrekoa, indarkeriaz jositako mundu lazgarri baten erdian dagoen Elizaren batasunaren sinbolo da.

Ikasleek hartuko dute onena, ordea. Ikasle kuttunari eta, horrekin, gainerako guztiei, **bere ama** emango die Jesusek. Horixe da oparirik


onena, Hark gehien maite zuena, gauzarik baliotsuena. Zorioneko ikasleak bere bizitzan hartuko du. Mariarekin, salbazioaren zain egon ondoren Jesusen heriotzarekin itxaropen hori gauzatuta ikusten Herriaren historia jaso dugu. Mariak ere hartuko du ikaslea. Elizaren bizitza sinestun bakoitzaren arduraren eta kariñoaren esku dago. Askotan, Eliza hori ez dugu oso gustuko, baina gure Ama da. Jesusek berak eman digu.

**Bere espiritua** eman digu batez ere Jesusek. Ez zen hil, bere espiritua eman zigun. Espiritu hori, haren hatsa, haren bizia, dago gagan, bere ikasleengan. Espiritu horrek piztu zuen Jesus hilen artetik, eta presente egiten du elizaren bizitzan. Maitasunezko espiritu horrek eraldatzen ditu Elizaren errealitateak, Eliza bera giza talde hutsa ez, baizik eta Jainko Aitaren, Semearen eta Espirituaren maitasunaren adierazpen izan dadin.

Espiritu horrek **pertsonen eta ekintzen** bitartekaritza konkretuen bitartez jarduten du, ordea, sakramentuen bitartez batik bat. Kristoren saihets irekitik sortu ziren Eliza eta sakramentuak, bataioarekin eta Eukaristiarekin. Bi horiek Kristoren Pazkoko gertaeretan murgiltzen gaituzte, haren heriotzan eta piztueran. Har dezagun parte, minez eta esker onez, Kristoren Pazkoan, haren piztuerara iritsi ahal izateko.

## Jainkoaren herriaren otoitza

*Une garrantzitsua da Jainkoaren herriaren otoitzarena. Merezki du lasai egitea, adibidez: diakonoak edo ohargileak asmoa jartzen du, isilune bat egiten da (batzarrak “Kyrie, eleison” abes dezake), apaizak otoitza eta batzarrak “amen”.*



Ky-ri-e, Ky-ri-e, e-lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e-lei-son!

*I. Eliza santuaren alde*

Egin dezagun otoitz, senide maiteok, Jainkoaren Eliza santuaren alde: gure Jaun eta Jainkoak bakea, batasuna eta laguntza eman diezazkiola mundu zabalean; guri, berriz, bizimodu baketsua, Jainko Aita ahalguztiduna goresteko. *(Isilunea/kantua)*

**Jainko ahalguztidun betierekoa, Kristorengan herrialde guztiei agertu diezu zeure handitasuna; zaindu ezazu zeure errukiaren lana, mundu guztian zabaldurik dagoen zure Elizak sinesmenean sendo iraun eta zure izena aitor dezan. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

### *II. Aita Santuaren alde*

Egin dezagun otoitz Frantzisko gure Aita Santuaren alde: gotzain mailara deitu duen Jainkoak sendo gorde dezala bere Eliza santuaren onerako, Jainkoaren herri santua zuzen gida dezan. *(Isilunea/kantua)*

**Jainko ahalguztidun betierekoa, Zuk darabiltzazu diren guztiak; onartu gure otoitzak eta maitasunez gorde ezazu Aita Santua, Zuk zuzentzen duzun kristau herriak, artzain honen ardurapean, aurrera egin dezan bere sinesmenean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

### *III. Edozein mailatako eliz zerbitzari eta kristau guztien alde*

Egin dezagun otoitz Jose Ignazio gure Gotzainaren alde, beste gotzain, apaiz, diakono eta eliz zerbitzari guztien alde, baita fededun guztien alde ere. *(Isilunea/kantua)*

**Jainko ahalguztidun betierekoa, zeure Espirituaz santu egiten duzu eta erabiltzen Elizaren gorputz osoa; entzun eliz zerbitzari guztien alde egiten dizkizugun otoitzak, zure graziari esker, bakoitza bere eginkizun berezian zure zerbitzari zintzo izan dadin. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**



#### *IV. Kristaugaien alde*

Egin dezagun otoitz [gure] kristaugaien alde: Jainko gure Jaunak berauen gogo-bihotzak ireki eta bere errukiaren atea zabal diezazkien, hauek ere, Bataioko uren bidez bekatu guztien barkamena harturik, Jesu Kristo gure Jaunaren gorputzeko izan daitezten. *(Isilunea/kantua)*

**Jainko ahalguztidun betierekoa, seme-alaba berriz ugaritzen duzu beti zeure Eliza; sendo ezazu [gure] kristaugaien sinesmena eta jakinduria, Bataio iturrian berriro jaiota zure seme-alabatzakoen artean sar daitezten. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

#### *V. Kristauen batasunaren alde*

Egin dezagun otoitz, Kristorengan sinesten duten senide guztien alde: egari jarrai diezaioten beren bizitzan eta gure Jaun eta Jaungoikoak bere Eliza bakarrean bildu eta zaindu ditzan. *(Isilunea/kantua)*

**Jainko ahalguztidun betierekoa, zure seme-alaba sakabanatuak bildu egiten dituzu, eta bildutakoak zaindu; begira bihotz onez zeure Semearen artaldeko ardiei, Bataio berak santu egin dituenak egiazko sinesmenak eta maitasunaren lokarriak bat egin ditzan zure Eliza bakarrean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

#### *VI. Juduen alde*

Egin dezagun otoitz juduen alde, Jainko gure Jaunak profeten bidez lehenengo hitz egin zion herriaren alde: aurrera egin dezaten beti Haren izen santuaren maitasunean eta Harekiko elkargoa zintzo gordetzen. *(Isilunea/kantua)*

**Jainko ahalguztidun betierekoa, Abrahami eta haren ondorengoei eman zenizkien zeure agintzariak; entzun errukiz zure Elizaren eskariak, behinola zure herri aukeratua izan zena Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

*VII. Kristorengan sinesten ez dutenen alde*

Egin dezagun otoitz, Kristorengan sinesten ez dutenen alde: Espiritu Santuaren argiaz beterik, hauek ere salbamen bidean sar daitezten. *(Isilunea/kantua)*

**Jainko ahalguztidun betierekoa, emaezu Kristorengan sinesten ez dutenei, zure aurrean bihotz leialez eta zintzo biziz, egia osoa ezagutzera iristea; guri, berriz, emaguzu elkar hobeto maitatzea, eta Zu sakonago ezagutzen ahalegintzea, zure maitasunaren aitorle hobeak izan gaitezen munduan. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

*VIII. Jainkoarengan sinesten ez dutenen alde*

Egin dezagun otoitz, Jainkoarengan sinesten ez dutenen alde: beren kontzientziari jarraituz Jainkoarengana irits daitezten. *(Isilunea/kantua)*

**Jainko ahalguztidun betierekoa, Zuk egin dituzu gizon-emakume guztiak, beti zeure bila ibil daitezten eta, Zu aurkiturik, Zeuregan atsedean izan dezaten; egizu, mundu honetako neke eta estualdietan, denek ikus ditzatela zure bihotz onaren ezaugarriak eta zure sinestedunen testigantza, horrela pozik aitor dezaten Zu zarela egiazko Jainko bakarra eta gizon-emakume guztien Aita. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

*IX. Herri agintarien alde*

Egin dezagun otoitz, herri guztietako agintarien alde: gure Jaun eta Jainkoak guztien gogo-bihotzak bere nahiaren erara erabil ditzan, denen bake eta askatasunerako. *(Isilunea/kantua)*

**Jainko ahalguztidun betierekoa, zure eskuetan dauzkazu gizon-emakumeen bihotzak eta herrien eskubideak; begira begi onez herrietako agintariei, Zuk emanik, mundu guztian izan daitezten bakea, aurrerapena eta erlijio askatasuna. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

### *X. Atsekabetuen alde*

Senide maiteok, egin diezaiogun otoitz Jainko Aita ahalguztidunari: garbi dezala mundua oker guztietatik, senda ditzala gaixoak, ogia eman diezaiela gose direnei, aska ditzala espetxeratuak, kateak hautsi, erbesteratuak herriratu, bidez dabiltzanak etxeratu eta hilzorian daudenak salba ditzala. (*Isilunea/kantua*)

**Jainko ahalguztidun betierekoa, atsekabetuen poza, nekatuen indarra, irits bitez Zuregana edozein estualditan Zuri diez daudenen eskariak, beren beharretan zure errukiaren laguntza aurki dezaten. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

### **Diru-bilketari oharpena**

*Egun honetan (derrigorrezkoa ez bada ere) lur santuetarako diru-bilketa egitea ohitura da. Noiz egin asmatzea beste kontu bat. Jainkoaren herriaren otoitza bukatu eta Gurutzea agertu bitartean egin daiteke, nahikoa biltzaile izendatuta diru-bilketa luza ez dadin. Oharpen hau egin daiteke.*

Ohitura zaharra da Elizan, gaurko egunez diru-bilketa berezia egiteko. Eliza guztietan lehenengoa den Jerusalemgo Elizari laguntzeko. Horixe egingo dugu guk orain, Gurutzea gurtzeko prestatzen garen bitartean.

## **II. GURUTZEA GURTZEA**

### ***Gurutzea agertu aurretik oharpena***

Gurutzea dugu ospakizunaren erdigunea. Berarengana zuzentzen ditugu gure begiak eta gure bihotzak. Orain, Jesusen gurutzea, Jesus bera gurutziltzatua gurtu behar dugu. Horretarako agertuko dute denon aurrean. Isiltasun eta begirunez, onar dezagun.

## **Gurutze santua gurtzea**

*Gurutzea gurtzera, apaiza, laguntzaileak eta kristauak ibildeuna eginez bezala bata bestearen ondoren joango dira, eta gurutzea gurtuko dute belaun batez belaunikatuz, edota beste eraren batez, lekuan lekuko ohituren arabera; esate baterako, gurutzeari muin emanaz. Gurutzea gurtu ahala eseri egingo dira. Bitartean kantu egokiren batzuk abestuko dira.*

### **III. JAUNARTZE SANTUA**

*Aldareko oihala jarriko da, eta gainean gorputz oihalak eta Meza Liburua. Ondoren, diakonoak, edota diakonorik ez balitz apaizak berak, gure Jauna ekarriko du gordeta dagoen sagrariotik aldarera, bide laburren etik; beste guztiak zutik eta isilik egongo dira. Laguntzaile bik lagunduko diote Jaunari argizari piztuekin, eta argiak aldare inguruan edota gainean uzten dituzte.*

*Ondoren, Jaunartzeko ohikunea hasiko da aitagurearekin.*

## **Jaunartze ondorengo otoitza**

**Jainko ahalguztidun betierekoa,  
zure Seme Jesu Kristoren heriotza eta piztueraz  
berritu gaituzu;  
zaindu ezazu gugan zeure errukiaren lana,  
misterio honetan parte harturik,  
beti zure zerbitzari izan gaitezen.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

## **Bukaera**

Bihar bilduko gara gaueko (*esan ordua*), pozez Pazko Gaubeila ospatzeko. Ospakizun horrek ematen die zentzua atzoko eta gaurko ospakizunei. Ahalegin gaitezen benetan, bertan parte hartzen. Azkeneko otoitzaren ondoren isiltasun osoan geratuko gara.

*Apaizak besoak herriaren gainera luzaturik, beste otoitz hau esaten du:*

**Jauna, zure Semearen heriotza ospatu dugu  
eta Beraren piztuera santuaren zain gaude;  
bidaliezaguzu zure bedeinkapen ugaria,  
etor bekigu zure barkamena,  
emaguzu zeure poza,  
sendotu gure sinesmena  
eta eraman gaitzazu betiko salbamenera.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

*Eta guztiak isilik aterako dira elizatik.*

*Une egokian, aldarea erantzi egingo da berriro.*